

ORTZADAR

05|11|01 DEIA Euskal kultura



ERAKUSLEIHOA/2. Igor Estankonak Patxi Salaberriren "No (poema akrilikoak)" du hizpide. **LITERATURA/3.** Inazio Mujika Iraolari elkarrizketa. **ORTZADAR/6.** Ipuin Lehiaketa. **MUSIKA/7.** Bluesa eta rocka, Arima Beltzaren disko berrian



Andra Mari taldea, euskal sustraien bila

GALDAKAKO DANTZA TALDEA 50. URTEURRENA OSPATZEN ARI DA AURTEN. HILABETEOTAN EGIN DIREN EKITALDIETAN TALDEAREN ALBOAN IZAN DIRENAK OMENDU NAHI IZAN DITUZTE DANTZARIEK

Galdakaoko Andra Mari 50 urte bete berri ditu, eta ez da gutxi dantza talde batentzat. 1955ean sortuzen, Elexaldeko elizaren inguruan biltzen ziren gazteen eskutik. Ordutik urte asko eta gauza asko gertatu dira. Denborarekin herriko plazatik Euskal Herriko plazetara egin zuen jauzi taldeak, eta handik atzerrira. Urte luzeetako lan gogorrek euskal dantza tradizionalaren munduko erreferente bilakatu du.

50. urteurrena behin bakarrik ospatzen denez, ahalegin berezia egin, eta egitarau bete-betea eskaini du Andra Mari 2005. urte honetan zehar. Hilabeteotan denetarik izan da: erromeriak, kantaldiak, ipuin lehiaketak, jaialdiak... Eta oraindik, urtea amaitu bitartean, hiru ekitaldi gelditzen dira. Joan den larunbatean, Euskalduna Jauregian, jaialdi ederra eman zuten. Taldearen iragana, oraina eta etorkizuna ordu bi eta erdiko ikuskizun zirraragarrian bildu zuten dantzariak. Andra Mari-koekin batera, eszenatokian aspaldiko lagunak izan ziren, Erramun Martikorena, Oskarbi eta Pantxo ta Peio. Urtemugak atzera begiratzeko aukera ezin hobea izaten dira, baita etorkizunaz hausnartzeko ere. Eta horrelako aukera ezin genuen galdu inola ere.

4-5 orrialdeak

Joan den larunbatean Euskalduna Jauregian egin zen jaialdiaren une bat.
Argazkia: Jose Sampedro

GURE IRAKURGELA

AZTERKETA ZORROTZEGIA

Sukaldariak espezia gramoi batzuk nahi izaten ditu pisatu maiz, platera graziaduna baina era berean sinplea egin ahal izateko. Badaki, ordea, lar sartuz gero, zaporea jango diola adornuak. Poesiarekin ere berdin gertatzen da, batzutan eroangaitza izan daiteke hainbeste poesia. “No (poema akrilikoak)” honetan ere titulutik bertatik hasita nekeza egiten da batzutan ahaztea poesia irakurtzen ari garela. Ez da sentipen atsegina hori, nahiz eta poema atseginak begitandu zaizkigun ia denak. Poemen itxura “poetikoa”



IGOR ESTANKONA

Liburua:
“No (poema akrilikoak)”
Egilea: Patxi Salaberri
Argitaletxea:
Pamiela, 2005

aramaioarraren berotasun eta, inoiz, suhartasunaren ondorio naturala baino ez da. Bueltan-bueltan mamira doan poesia egiten du, baina bidea zorrotzegia da batzutan. Klasikoa da liburua, dezimonoikoa ausaz, ausartenentzako idatzia inondik ere. Idazlearen apustu bat da pieza bakoitza. Irabazi zein galdu, dena ematen du Patxi Salaberri lerroetan, eta agian horrexegaitik dauka azterketa itxura nabariegia.

Subjektutik idatzitako poemarioa da “No (poema akrilikoak)”. Ikusitakoa eta “gauzak ikusteko modua” bereiz-

tu ezinezkoak dira. Hartzailaren atxikimendua eskatzen du derrigor. Errealitateak eta poemek biek bat egin arte arriskatzen du: «Izarren distiran bilatu izan dut bizitzak eskatzen uste zidan erantzuna». Askotan metaliteraturaren eta zilbor-poemen aldats-behera labainean behera doa liburua, eta harekin gu, irakurleok, zeinon ez baitzaigu interesatzen poemaren genesis, ezpada pieza bukatuaren edertasuna.

«Gizakiaren aniztasuna ulertuko badute, Poesiaren premia dute etikak, folosofiak, antropologiak; are pre-

mia handiago, giza-errealitatean, gizakiaren baitan/ artez/ eragin nahiko balute» dio poetak. Eta duda egiten dugu ea poesiak izan behar duen funtzionala eta beste disziplina baten menpekoa. Duda egiten dugu ea poesia terapia egiteko erabili behar den, edo poesia egiteko. «Maitasunezko poemak idazten zituena», kontatzen digu idazleak Kamleh Al Shulitaz. Gogoz gelditu gara jakiteko ea Patxi Salaberri idazten duen maitasunezko poemarik, eta zelan ateratzen zaizkion erretrikaren galbahetik pasatu aurretik.

ERAKUSLEIHOA

Kale gorrian daudenak



“Kale gorrian” nobelak etxegabeen arazoa plazaratzen du, intriga

eta jakin-minari uneoro eusteko balio dion egitura azkar batekin. Gazteentzako eleberrri honetako protagonista Link kale gorrian bizi da, gurasoekin moldatu ezinik etxetik joan zenetik. Londresen dabil nora ezean, izuak eta hotzak kizkurtuta. Ez da erraza kaleko bizitza, jateko zerbait eta lotarako toki aurkitzea. Egun bakoitza biziraupenerako borroka da. Aldi berean, Shelter izeneko morroi batek kaleak “garbitu” egin nahi ditu, eta eskale etxegabe horientzat baditu bere planak. Shelter eta Linken bideak noiz gurutzatuko diren irrikaz eta beldurrez egongo da irakurlea. Robert Swindellsek gazteentzako liburu ugari idatzi ditu, baita hainbat sari jasotako ere.

“Kale gorrian”
Robert Swindells, Elkar-Taupadak bilduma. Itzultzailea: Iñaki Mendiguren. 172 orrialde. 10,50 euro.



Berri Txarrak taldea, “Entzun!” aldizkarian

Berri Txarrak hirukoteari eskaintzen dio zenbaki berriaren azala, 45. a, “Entzun!” musika aldizkariak. “Jaio. Musika. Hil” disko berriaren inguruan ari dira elkarrizketan. Azkenengo hilabeteetan kaleratutako beste zenbait lanen berri ere ematen du agerkiariak. Besteak beste, Makala, Señor No, Mikel Urdangarin, Solo los Solo, Sorkun edo Arima Beltza taldeak agertzen dira. Atzera begiratzeko parada ematen duen atalean, MCD taldearen nondik norakoa azaltzen da, baita azkenaldian izandako ikamika ezagunak ere.


“Entzun!” aldizkaria
45. zenbakia. 3 euro.



Euskararen gizarte erabilera aztergai

“Karmel” aldizkariak 251. zenbakia kaleratu berri du. Zenbaki honetan euskararen gizarte-erabilera buruzko artikulua idatzi du Andres Urrutia euskaltzainburuak, katalanaren gizarte-erabilera inguruan emandako urratsak kontuan hartuz. J. R. Etxebarriak, ordea, “Donostian Einsteinen annus mirabilis ospatzen” testua egin du. Gizarteari dagokion atalean, Juan Mari Arrizabalagak, “Beste begirada bat” izenburupean, gure inguruko hainbat toki batu ditu iruditan, baina irudi biribilduetan. Biribiltasunez marraztu ditu Donostiako Kasino Handia, San Telmoko klaustroa, Kontzako baranda, Haizearen orrazia...

“Karmel” aldizkaria
251. zenbakia, uztaila-iraila.



Folio bakarreko piezen bilduma

“Libreta horiko poemak” eta “Gauza txikien liburua” lanekin batera, “Note book” argitaratu berriak trilogia bat osatzen du. Ipuinak eta gogoetak bildu ditu Pako Aristik, 75 testuren bitartez. Pieza bakoitzak gainera neurri bera du, folio bana. Erraz irakurtzeko moduko liburuak idatzi du Urrestilakoak. Bizi garen gizarteanolako den azaltzen saiatu da, komunikabideek hedatzen dituzten estereotipoak bazterturik. Inertzia pertsonalak, eskaintza ekonomikoaren kultura, hedabideen estaltze lana, mundua gozamenerako jolas parkea balitz bezala ikusteko joera... gai asko jorratu ditu egileak.

“Note book”
Pako Aristi, Erein. 159 orrialde. 15 euro.

SALDUENAK

FIKZIOA

- 1. Note book.**
Pako Aristi, Erein.
- 2. Neguko zirkua.**
Harkaitz Cano, Susa.
- 3. Mutuaren hitzak.**
Hasier Etxeberria, Susa.
- 4. Labartzari agur.**
Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi, Elkar.
- 5. Belarraren ahoa.**
Harkaitz Cano, Alberdania.

EZ FIKZIOA

- 1. Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo.**
Iñaki Segurola, Alberdania.
- 2. Portugoietara. 1.000 berridazketa.**
Roberto Tejera-Bollain / Alkarterri, Elkar
- 3. Bakarka 1.**
J. A. Letamendia, Elkar.
- 4. Antzinako euskaraz.**
Luis Nuñez Astrain, Gaiak.
- 5. Errezetak Arzak.**
Juan Mari Arzak, Baint media.

(Bilboko Lizardi eta Urretxindorra, Iruñeko Auzolan eta Donostiako Hontza dendetan jasotako informazioa).

INAZIO MUJIKA IRAOLA “ITZULTZAILE AITZINDARIAK” BILDUMAREN ARDURADUNA



Inazio Mujika Iraola editorea, idazlea eta itzultzailea da.

«ADANISMOAN BIZI GARA, GURE AURRETIK INOR IZAN EZ BALITZ BEZALA»

Testua: **Patxi Sarriegi**
Argazkia: **Alberto Guerrero**

Euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpretarien elkarrekin, EIZIEk argitaratutako “Itzultzaile aitzindariak” izeneko bilduma prestatzen dihardu Inazio Mujika Iraola editoreak. Oraingo honetan 1935ean “Argia”ren egutegian anonimo batek Peter B. Kyneren “Garailea”, orduko best-sellerra apailatu du. Baina aurretik beste bi liburu ere prestatu ditu, Ander Arzelus eta Iñaki Goenagak aspaldi itzulitakoak. Alberdania argitaletxeak Irunen duen egoitzan hartu gaitu Inazio Mujika Iraolak, eta elkarrizketan azaldu digunez, galduta eta inork gutxi ezagutzen dituen testuak eta itzultzaileak berreskuratzea du helburu nagusia aipatutako bildumak, gure aurretik euskarara egindako itzulpenetan egindako ahalegin sakonak ezagutarazteko asmoz. Bere ustez, «adanismoan» bizi gara gaur egungo euskaldunok, gure aurretik inor izan ez balitz bezala jokatu ohi dugu. **EIZIEk kaleratutako “Itzultzaile aitzindariak” bildumako hirugarren liburua prestatu berri duzu. Nola sortu zen halako bilduma sortzeko ideia?**

DUELA 70 URTEKO “ARGIA”REN EGUTEGIAN ARGITARATUTAKO B. KYNEREN “GARAILEA” LIBURUA ARGITARATU BERRI DU EIZIE ELKARTEAK, INAZIO MUJIKA IRAOLAK PRESTATUA

EIZIEri nik proposatutako bilduma da hasiera batean, eta onartu egin zidaten. Lehendik EIZIEk sortuta zeukan itzultzaile zaharrak omentzeko bilduma bat, eta haiek itzulitako lanak argitaratzen zituzten bertan. Hori bukatu zenean, aldizkari zaharretan galdutako testu interesgarriak bazirela eta, garai bateko lehenengo itzultzaile zaharren lanak berreskuratzeke proposamena egin nien.

Zein izan zen prestatu zenuen lehenengo liburua?

“Luzear” ezizena zuen Ander Arzelusen itzulpena prestatu nuen lehendabizi. 1931koa da, “El Día” izeneko egunkarian epeka argitaratutakoa. Honek Charles Dickens “Eguarri abestia” itzuli zuen. Egia esan, bere erreferentzia banuen Koldo

Mitxelenak asko goraiatzeko baitzuen bera. Bila hasi, aurkitu, transkribatu, hitzaurrea idatzi eta horrela argitaratu nuen lehenengo alea.

Bigarren libururako Iñaki Goenagak egindako itzulpen liburua aukeratu zenuen.

Aurten hil da 100 urterekin. Jesuita izateko ikasi baina atera egin zen 1935ean. Urte horretan bertan, Aitzol zuzendari zuen “Yakintza” aldizkarian argitaratu zuen epeka Friedrich Schillerren “Wilhelm Tell” obra klasikoak, inork ezagutzen ez zuena. Horri ere Iñaki Goenagari buruzko hitzaurrea erantsi nion eta hiztegitxoa.

Oraingoan Peter B. Kyneren “Garailea” liburua prestatu duzu, 1935eko “Argia”ren egutegian irakurle anonimo batek

euskaratutakoa gainera. Zein da liburuak jorratzen duen gai nagusia?

Garai hartako intrigazko nobela da, umorea ere baduena, oso gustura irakurtzen dena. 1921ean argitaratu zuen ingelesez Peter B. Kynek, eta berezitasuna, kasu honetan, itzultzailea zein den ez jakitea da. “Argi”ren irakurle batek euskaratua jartzen du, besterik gabe. Hipotesi asko egon daitezke garai hartan ingelesezko euskarara nori itzul zezakeen, baina ez naiz ausartzen izen bat esatera. Gai nagusia Ameriketako Estatu Batuetan kokatua dago, Kalifornian, eta egur enpresa bat da kokalekua. Bertako langileekin gertatzen da trama nagusia; gaztele-raz orain dela gutxi argitaratu zuten eta enpresa gizon askok erabili du beren bileretan lanari buruz aritzeko. Gaztele-razko edizioan 500.000 ale salduta dituzte dagoeneko.

Hiru liburutan jatorrizko testua gaurkotu behar izan duzu -ortografiako xehetasunak gehien bat eta sarrera eta hiztegitxoa prestatu dituzu. Ba al dute bestelako berezitasunik?

Alde batetik, testuak kokatzen saiatu naiz, alegia, noiz, nola, zer dela eta... argitaratu ziren.

Lehenengo bietan itzultzaileari buruzko datuak ere ematen ditut; izan ere, Arzelus eta Goenagari buruz oso datu gutxi bilatuko baititu horien bila doanak, eta batzuetan okerreko datuak ere eman izan dira eta. Eta horretaz gainera, hiru liburuen atzean jatorrizko testua dator: bigarren goan alemanez eta beste bietan ingelesezkoa. Bukar-eran hiztegitxoa sartu dut, garai bateko euskal hitzak hobeto ulertzearen.

Zein da beraz “Itzultzaile aitzindariak” bilduma honen ezaugarri nagusia?

Galduta eta inork gutxi ezagutzen dituen testuak eta itzultzaileak berreskuratzea du helburu nagusia. Izan ere, gaur egungo euskaldunok adanismoan bizi garela iruditzen baitzait askotan, aurrenekoak gu bagina de-nea eta gure aurretik inor izan ez balitz bezala. Eta hori ez da egia. Gure aurretik egon dira, eta ahalegin sakonak egindakoak gainera, ahal zuten neurrian noski, orduko gizarteari erantzunez.

1987an argitaratu zenuen “Azukrea belazeetan” lehen liburitik hainbat eta hainbat liburu idatzi dituzu, prosazkoak gehienak. Alberdaniako editorea ere bazara, itzultzaile lanean ere ibili zara... Zein da gehien estimatzen duzun lana?

Editorea naiz, idazle ere bai, itzulpenen jarraitzailea ere baina... eta baita irakurlea ere. Nire kasuan, gehien maite dudana irakurtzea da, eta gero idaztea. Idaztea beti irakurtzearen ondorioa izan da niretzat.

Hainbat itzulpen eginak dituzu... itzulpena sorkuntza lana da, ala sormen gaitasuna idazleari bakarrik aitortu behar zaio, eta ez itzultzaileari?

Sorkuntza lana ere bada, baina sorkuntza baldintzatua. Izan ere, itzultzaileak idazlearen estiloa makurtu behar du, baina ez dagoen testua sortu behar du beste hizkuntza batean, eta hizkuntza horretan ondo funtzionatu behar du. Askok miresten ditut itzultzaile onak.

Euskarari nolako etorkizuna ikusten diozu?

Egoera desberdina da EAE, Nafarroa eta Iparraldean. Baikor izan nahi dut, baina egunaren arabera izaten da nire baikortasuna. Nire kezka nagusia da, eremurik onenean, EAE-n, euskara ez ote den eskolako hizkuntza geldituko, gure gazteek eskolan erabiltzeko beste ezertarako ez ote duten erabiliko, bizitzeko erabili beharrean.

Laster izango den Durangoko azokari begira zein nobedade izango ditu Alberdaniak?

Juan Kruz Igerabide, Angel Erro, Iban Zaldúa, Aingeru Epaltza, Javi Cillero edota Joxean Sagastizabalenak, besteak beste. Gehiago ere izango dira.

Urte guztitako Durangoko azokaren bilakaera ezin hobea izan da. Ezertan aldatu behar al luke?

Funtzionatzen duen neurrian, utzi egin behar zaio bere bidea egiten, partaide guztien iritzia kontuan hartuz. Hainbesteko jendetza biltzen duen jendeak ez dut uste ezertan aldatu behar duenik modu erradikalean. Aldaketak izan daitezela neurruak eta arrazoituak!



Andra Mariko dantzariekin batera, Erramun Martikorena, Oskarbi eta Pantxoa ta Peio musikariak izan ziren Euskalduna Jauregiko eszenatokian.

Mende erdia kantuz eta dantzaz

GALDAKAOKO ANDRA MARI EUSKO DANTZARI TALDEAK 50 URTE BETE DITU, ETA HAINBAT EKIMENEKIN OSPATU DU URTEMUGA. INDARTSU ETA GOGOTSU DAGO TALDEA



Jose Angel Sagasti, Andra Mari dantza taldeko presidentea.

Testua: **Nagore Ferreira Zamalloa**
Argazkiak: **Jose Sampedro**

Andra Mari Eusko Dantzari Taldeak 50 urte bete ditu aurten kantuz eta dantzaz. Galdakaoko Elexaldeko elizan eman zituen taldeak lehenengo urratsak, eta ordutik Euskal Herriko zein atzerriko plaza ugarian aritu izan da. Modu hain apalean hasi zen taldea euskal dantza tradizionalen esparruan erreferentea izatea lortu du urteekin. Elkartearen mende erdia ospatzeko 2005. urte honetan hilabetero hainbat ekitaldi antolatu dituzte –erromeriak, bertso saioak, ipuin lehiaketa, Boisera bidaia, herri bazkariak, kantaldiak...– baina oihartzun handiena izan duena agian larunbat honetan Euskalduna Jauregian egindakoa da.

Urtemuga ospatzeko ekitaldiak amaitzen ari dira, baina oraindik hiru bat saio geratzen dira. Urtea arin igaro dela dirudi, hala ere ez da «erraza» izan, Andra Mari taldeko presidente Jose Angel Sagastiren ustez: «Urtea oso ondo joan da, behar piloarekin, baina ondo. Egite-erabaki eta pentsatu genuen erraz egingo genuela... Amaitzen gaude, pisu handia daukagu aldean. Udalaren eta Foru Aldundiaren babesa ere garrantzitsua izan da. Pena da Jaurlaritzak ez digula laguntzarik eman». Pozarren daude emaitzarekin, izan ere herriko

jendea asko inplikatu baita. «Hilero euki dugu erromeria bat, eta bakoitzean Galdakaoko txoko baten laguntza euki dugu. Eskertzekoa da», azpimarratzen du Sagastik.

Joan den larunbateko jailldiarekin ere «oso pozik» dago taldea. «Euskalduna gainezka zegoen, jendea oso gustura ikusi genuen». Euskal Telebistako kamarek ekitaldi osoa grabatu zuten, eta laster emango dute telebistaz ere.

ORAIN 50 URTE...

Galdakaoko Elexaldeko elizan eman zituzten lehenengo jauziak Andra Mari dantza taldeko kideek, 1955ean. Elizako korridore batean hasi ziren dantzan, Kepa Artetxe dantzariak gogoratzen duenez: «Leku handirik ez geneukan orduan, baina apurka-apurka taldea indartzen joan zen. Hasieran, bertoko mutil bi joaten ziren Karmelora ikasten, gero guri irakasteko».

Handik urte bira egin zuen Andra Marik jendaurreko lehenengo saioa. Denbora tarte batean Euskal Herriko hamaika plazatan ibili ziren dantzan. 1963an irten ziren lehenengo aldiz Euskal Herritik. «Ingalaterrara joan ginen. Orduan ez zen edozein joaten Ingalaterrara! Nork zekien orduan ingelesa? Existitzen zenik ere! Kar, kar, kar...». Lehenbiziko irteera horretan hirugarren saria lortu zuten txapelketan. «Pentsatu ere ez genuen egin sari eta guzti itzuliko

ginenik...», oroitzen du dantzariak.

Hasierako urteak ez ziren errazak izan, baina taldeak herriaren laguntasunarekin aurrera egin zuen. «Hasikeran Andra Mari izan zen mugimendu ia errebindikatiboa. Momentu horretan edo dantza taldeak edo mendigoizale taldeak zeuden. Jendea horrelakoetan sartzen zen Frankismoaren kontra egiteko, edo sikeran euskaldunak batzeko eta indar apur bat egiteko», azaltzen du presidenteak.

HAINBAT MUGARRI

Edozein dantza taldek une edo pertsonaia garrantzitsuak izaten ditu bere ibilbidean. Andra Mari Eusko Dantzari Taldearen kasuan, mugarri horiek izenabizenak dituzte. Denak izan dira, nolabait esateko, maisu edo gidari. Sabino Larrea zena izan zen lehenbiziko motorra, hark eman zuen lehenengo bultzada. «Ekintzak eta egiteko beti prest zegoen, beti zeukan zoezer buruan bueltaka –dio Artetxek– Ekintzailearen».

Berak ekarri zuen taldearentzako hain garrantzitsua izango zen Txelu Etxebarria. «Dantzak ondo egiteko, behar diren moduan egiteko ardura sartu zigun Txeluk. Inportantea izan zen guretzat», jarraitzen du dantzari galdakoztarrek.

Etxebarriak 65ean utzi zuen Andra Mari. Dantzariak orduan euren kontu hasi ziren ikasten eta irakasten. Urte batzuk beranduago, 70. hamarkadan dagoeneko, Juan Antonio Urbeltz folklorista ezagunarekin topo egin zuten. Folklorearen arloan lan egiteko modua erakutsi zien, horrela Euskal Herri guztiko errito, musika eta dantza zaharren ikerketa, ikasketa eta berreskuratze lanari ekinez.

Horretaz gain, makina bat dantzari eta musikari izan dituzte alboan 50 urtean: Patxi Bilbao, Bartolo Lasa, Silbestre Elezkano «Txilibrin», Joakin-txu Goti, Pepito Astondoa, Pablo

Intxaurrea, Leon Bilbao, Maurizia Aldaiturriaga, Juan Aiesta, Rufino Arrola, Simeon Iragorri, Patxi Bernaola, Raimunda Bizkarguenaga, Satur Arandia, Bitoria Amorrortu, Pedro Barrenetxea... Zerrenda luzea da.

FORMA TRADIZIONALAK
Euskal dantza tradizionalak, «ondo egiteko», ordu asko eskatzen ditu, entsegu asko. «Taldea batzuk hortxe-hortxe irtetzen dira, dantza ondo menperatu barrik. Askok ez dakite zertan dabilen, ez dietelako irakatsi», nabarmentzen du Sagastik. Dantza talde batzuen jarrera horrek kalte handia egin diola pentsatzen dute Andra Marikok. «Jendeari ezin zaio edozein gauza eman, baina hori egin da eta egiten da. Gutxiengo errespetua behar dute euskal dantzek. Edozelan egin dira gauzak, horregatik ere bajatu da asko dantzaren mundua».

Forma tradizionalak gordezkeko lan handia egiten dute. Azkenaldian egiten diren koreografiaren inguruan euren iritzia dute Sagastik eta Artetxek: «Koreografiak aurka ez gaude, baina ondo egin behar dira. Koreografiak egiteko asko jakin behar da. Urbeltzek egiten dituzte ikuskizunak, baina badakielako zertan dabilen. Hainbeste ez dakitena hasten dira horrelakoak egin nahian eta...»

48 dantzarik osatzen dute gaur egun Andra Mari, baina 60 bat daude lanean taldearen inguruan. «Gaine-gainean egon behar da, denak ez dira egundo batzen... Beharrerako prest daude, baina mundu honetan bizi dira, eta batzutan azterketak dauzkate, beste baten txandaka egiten dutela lan, edo Durangoko jaiak direla», dio irrifarrez Artetxek.



AZKENENGO SAIOAK

AZAROAREN 26a
Andra Mari taldearen Jaialdi Nagusia. Urretako polikiroldegian.

AZAROAREN 27a
Meza, Elexalden, Andra Mari taldeko hildako kideen omenez. Bazkaria eta erromeria.

ABENDUAREN 28a
Benito Lertxundiren kantaldia. Urretako polikiroldegian.



Dantza eta musika izan ziren nagusi Euskaldunako jaietan.

KEPA ARTETXE DANTZARIA

«ELIZAN, SANTO KRISTOAREN ONDOAN HASI GINEN DANTZAN»

Testua: **N. F. Z.**
Argazkia: **Jose Sampedro**

Kepa Artetxe dantzariak 50 urte daramatza Andra Marin, dantza taldeak dituen beste urte hain zuzen. Eta oraindik dantzan jarraitzen du.

Andra Mari taldearen sortzaile-etakoa zara, gogoratzen duzu nola izan ziren lehenengo pausak?

Elizaren inguruan sortu zen taldea, Acción Católica ibiltzen zenean eta gu gazteak ginen orduan, «aspiranteak» esaten ziguten. Hainbat ekintza egiten ziren, eta ekintza bat izan zen dantzaren ingurukoa. Batzuk ez zuten dantzari egin gura, euskal kulturarekin identifikatzen zuten eta. Baina beste batzuk alde zuden, eta horrela hasi ginen. Apurka-apurka taldea gorputza hartzen joan zen. Taldean hasi ginen gehienak abertzaleak ziren.

Orduan, abertzaletasuna eta dantza lotuta zeuden?

Bai, jendea identifikatu egiten zen dantzarekin. Abertzaletasuna erakusteko modu bat zen. Herrian ere lehenengo laguntasuna abertzaleek eman ziguten, eta lehenengo bazkideak ere abertzaleak ziren. Errepresioa oso handia zen sasoi hartan.

Ordu piloa emango zenituzten hasierako urteetan, ezta?

Elizan hasi ginen dantzan, Santo Kristoaren ondoan, kar, kar, kar... Sabino Larreak Gaztedi taldetik Juan Orozko «Txinbera» ekarri zuen, eta harekin irteten ginen plazara lehenengoz, 1957an. Oraingo gazteek baino denbora gehiago geneukan guk gatzetan, honek beti dabilta galapan. Denbora asko geneukan, eta dantzan ematen genuen zati handi bat. Orduan ez zegoen orain dagoen beste gauza.

Juan Orozko «Txinbera»ren ostean, Txelu Etxebarria euki zenuen maisu.

Bai, hori ere Sabinok ekarri zuen. Nahiko ezaguna zen Txelu Etxebarria. Ikerketa batzuk eginak zituen. Bera arduratu zen dantzak diren moduan egin behar direla guri erakusten. Bera zen lehenengoa Bizkaian horrelako lanean zebilena. Gurekin zegoela «Bizkaiko dantzak» liburua atera zuen Txeluk. Hura izan zen guretzako lehenengo kontaktu interesgarria. Euskal Herriaren nortasuna, sustraiak topatu behar genituela sartu ziren buruan. Guretzako jaungoikoa izan zen. Sei bat urte egin zituen gurekin, gero gure kontuasi ginen. Geuk geure artean irakatsi eta ikasten genuen, eta herrietara joaten ginen leku bakoitzeko dantzak ikusten... Handik urte batzutura Juan Antonio



50 urte daramatza Kepa Artetxek dantzan.

Urbeltz ezagutzeko aukera izan genuen...

Nola ezagutu zenuten Juan Antonio Urbeltz?

Txiripaz izan zen. Joseba Ariznabarreta ezagutzen nuen nik, eta hark Jose Angel Irigarai, eta honek Juan Antonio Urbeltz. Horrela izan zen, batak besteari esanda. Herrietara joan eta herrietan ikasteko ohitura irakatsi zigun Urbeltzek. Oso garrantzitsua izan zen bera ezagutzea. 1970. urte inguruan izan zen. Berekin ikasi genuen folkloreak inguruan zelan egin behar den lan. Orduetik hona arduratzen gara zuztarrak topatzen. Koreografiak eta erabiltzearen apur bat kontrakoak gara, gure iritziz euskal dantzak nahiko koreografia daukate berez. Eta urteak martxan horretan joan dira, ikertzen eta dantzan.

Argazki zaharretan plazak jendez gainezka daude, herri osoa egoten zen dantzak ikusten. Gaur egun ez da erraza, asko aldatu da egoera?

Orduan folkloreak indar handia zeukan, jakin-mina ere askoz handiagoa zen. Jendeak euskaltasuna galdu egin duela pentsatzen dut. Galdakaoko zine zaharrak 1.200 butaka zeuzkan, eta goraino betetzen genuen. Zine berriak 400 bat dauzka, eta ez dugu betetzen. Taldeek ere erru apur bat euki dute, ze jendeari askotan eman zaio edozein gauza. Ez dugu kontzientziarik euki euskal dantzak aurkeztu behar direla duintasunez, behar den moduan. Herriak eta publikoak errespetua behar du, horregatik diot taldeon errua ere izan daitekeela egoera hau.

Europa eta Ameriketako plazetan

Andra Mari dantza taldeak bidai ugari egin ditu atzerrira, Europara batez ere, baina baita Ameriketara ere. Kanadan, AEBetan, Frantzian, Britainia Handian, Lituanian, Hungarian, Austrian, Britainian, Portugalen, Danimarkan, Errumanian... hainbat tokitan izan dira urteotan. Lehenengoa 1963an izan zen, Ingalaterrara. Hirugarren saria eskuratu zuten. «Zelango poza hartu genuen», gogoratzen du Kepa Artetxe dantzariak. Hurrengo urtean ere joan zen taldea, eta bigarren saria ekarri zuten Galdakaora; hirugarrenean, 1966an, lehenengo saria jaso zuten. «Aspertu egingo genituen gure dantzekin eta azkenean lehenengo saria eman behar», dio barrez Artetxek. Sabino Larrea zenak lotzen zituzten bidaiak, nahiz eta batzutan ostaturik ere ez zuen hartzen. «Badakizu, horrela merkeago irtetzen zen. Autobusean lo egin eta lekua topatu beharrik ere

ez». Orduan folkloreak jende asko erakartzen zuen, ez soilik Euskal Herrian baita kanpoan ere. Dena den, halako batean taldeak erabaki zuen ez zela txapelketa gehiagotara joango. «Bakoitzak dauka bere folklorea, ez zitzaigun gustatzen onena edo txarrerara zein den esatea», azaltzen du.

Aurten Boisen (AEB) egon da taldea.

«Hartu-emana oso interesgarria izan da».

Herrialde gehienetan oso ondo hartu dituzte. Baina beti ipintzen dute baldintza bat: «Garen moduan onartu behar gaituzte, Euskal Herria ez badute onartzen ez goaz.

Arazo batzuk euki ditugu horregatik. Normalean ez dute ikurriarik eukitzen, baina geurea eramaten dugu. Espainiara ez gara joaten, espainolak garelako esaten dutelako»



Goian, Llangollen jaialdian, Galesen, 1968an; eta, behean, Montrealen, 1995ean.

IX Concurso Literario

premio Xabier Leizaola

IX. Ipuin Lehiaketa

Xabier Leizaola saria

concurso de cuentos

ipuin lehiaketa

ORTZADAR

DEIA



LABURRAK

“Kantuketan” erakusketa ikusgai, Iruñean

Euskal Kultur Erakundeak “Kantuketan” erakusketa paratu du Iruñean, Tafalla Jauregian, abenduaren 2a arte. Euskal kantua erakusten eta entzunarazten du erakusketak. Soinuz eta irudiz bete ibilbide harrigarri bati jarraituz, euskal kantuariaren historia, gizartean duen lekua, euskal jendearekin duen harremana eta gaur egungo aniztasuna deskubrituko du bisitariak. Etxahun-Iruriren bozaren oihartzunetatik Su Ta Gar taldearen heavy metalaren durundietara, Idaho basamortuan 1940an grabatu euskal artzainen bertsoetatik Anariren ahotsera biltzen du erakusketak.



Ikus-entzunezkoen Rallya antolatu du Topaguneak Eibarren

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak «gazteen sormena eta ekoizpen artistikoa sustatzeko asmoz», Euskal Herriko 1. Ikus-entzunezkoen Rallya egingo du abenduaren 17an, Eibarren. Bertan parte hartu nahi duten 16 eta 36 urte bitarteko gazte euskaldunek izena eman beharko dute, azaroaren 21a baino lehen. Ikus-entzunezkoen Rallyak, gehienez, hiru minutuko ikus-entzunezko lana sortzean datza, lehiaketa egunean eta Eibarren kokatuta. Askotariko lanak izan daitezke, ez da zertan metraje laburreko filma izan. Lanen gaia lehiaketaren egunean bertan jakitera emango da. Parte-hartzaileek gai horretan oinarritutako lana aurkeztu beharko dute, Eibarreko ezaugarriak txertatuta eta euskaraz ekoiztuta. Ikus-entzunezko lanak abenduaren 17an bertan grabatuko dira, goizez. Ondoren, arratsaldean, ekoizpenari lotutakoak egingo dituzte parte-hartzaileek. Biak, grabaketa eta ekoizpena, formatu digitalean egingo dira. Horretarako, antolatzaileek parte-hartzaileen esku ordenagailuak eta Adobe Premiere 7.0 programa jarriko dituzte. Rallya izango den egunean bertan, hots, abenduaren 17an, grabatutako lanak proiektatuko dituzte, arratsaldeko 20:30ean. Ondoren, sari banaketa egingo da.



Arima Beltza taldeko kideak.

Kotxean entzuteko modukoa

BLUES-ROCKA EUSKARAZ ERE EGIN DAITEKELA
ERAKUTSI DU BERRIZ ERE ARIMA BELTZA TALDEAK
“MUNDURAKO ATEAK” LAN BERRIAN



DISKOA

Izenburua:
“Mundurako atek”.

Taldea:
Arima Beltza. Ion Gurrutxaga, Iñigo Araujo, Aitor Badiola, Patxi Zabaleta, Joseba Alonso “Hippy”, Elur Arrieta.

Diskoetxea:
Gaztelupeko Hotsak.

Testua: **N. F. Z.**
Argazkiak: **Dani Blanco**

Urteak ez dira alferrik pasatu Arima Beltzarentzat, Gaztelupeko Hotsak diskoetxe-ko Jose Felix Azkarate Xarraren ustez. Orain dela zortzi bat urte Elgoibarren sortu zen taldeak “Mundurako atek” hirugarren diskoa kaleratu berri du, eta nabari da urteek ondu dutela euren musika.

Aurreko lanetan bezala, bluesa da abestien ardatza, baina rockerantz jo dute. Hamaika kantuk osatzen dute diskoa; lehenengo hiruek (“Mundurako atek”, “Irrien leihoa” eta “Des-

irak eta gezurrak”) 70eko hamarkadako rock kutsua daukate, hasiera beraz nahiko rockeroa da. «Kotxean entzuteko moduko diskoa» dela azpimarratzen du Ion Gurrutxaga abeslari eta bateria-joleak. Bluesa euskaraz egin daitekela, «eta ondo, gainera» erakutsi nahi dute Arima Beltzako kideek. Hirugarren lan hau horren lekuko da.

Aldaketak izan dira taldean, izan ere Lander Trinidad gitar-joleak proiektua utzi baitu, eta bere ordez Patxi Zabaleta «taldearen aspaldiko laguna» sartu da. Dena den, Trinidadek lan berraren garapenean parte hartu du. “Bizitzaren trapezista” kan-

tan bere gitarra entzun daiteke, gainera.

SENDOA ETA ZABALA
Disko «sendoa» eta «zabala» da, Gurrutxaga eta Zabaletaren iritziz. «Gitarraren riffak oso zehatzak dira, aurrekoetan baino sinpleagoak, baina hobeto pentsatutakoak. Lan sendoa da», dio kantariak. «Esentzian bluesa da» gitar-joleak azaltzen duenez. «Disko zabala da –jarraitzen du– bai soinu aldetik bai hitzen aldetik ere. Rock-bluesa da, batzuetan rockeroagoa da, baina bluesa du sustraian».

«Gure inguruko gauzak» landu dituzte diskoko abestietan, beste bietan egin zuten legez; maitasuna, gerra, gizarte gaiak... “Uso txuria” kantuan, esate baterako, Irakeko inbasio izan dute kantagai.

Abuztuan grabatu zuten lana, Mungiako Lamiña estudioetan. Natxo Libertyk grabatu eta ekoiztu du. Estudioa berria da eta lehenengo aldian zen Libertyk horrelako musikarekin lan egin zuena, horregatik erabakiak «arriku» puntu bat izan duela pentsatzen du taldeak. «Emaitzarekin gustura gaude. Oso ondo moldatu gara», nabarmen-tzen du Gurrutxagak.

Lehenengo aurkezpen kontzertua azaroaren 11n egingo dute, Donostiako Lugaritzen.

Fundizio batean

1997ko irailean sortu zen Arima Beltza, Elgoibarren. Lehenengo urratsak Aitor Badiola gitar-joleak eta Ion Gurrutxaga bateri-jole eta kantariak eman zituzten. Garai hartan ez zuten egin entseguak. John Mayall eta Eric Clapton ziren nagusi beraien saioetan.

Arima Beltza fundizio batean sortu zen, izan ere fundizio zahar bateko lokal batean egin baitzituzten benetako lehen entseguak. Handik gutxira Lander Trinidad bertan zen beraiekin. Iñigo Araujo baxu-jolea heldu zen ondoren. Laukoteak

abestiak konposatzen eta bertsoak ateratzen jarraitu zuen. Lehenengo kontzertua 1998an eman zuten, Soraluzeko Gaztetxean. Ordutik Joseba Alonso “Hippy” makina bat zuzenokotan izan zuten bere aho-soinuarekin, eta gaur egun taldeko kidea da.

AGENDA

“Munduko familiak” erakusketa, Euskaltelium aretoan

1 Munduko hainbat herrialdetako bizilagunen bizitza erakusten dute Peter Menzelek koordinatutako erakusketak. Ehun bat irudi bildu ditu “Munduko familiak (Material World: A Global Family Portrait)” erakusketan. Bizimodu oso ezberdinak, eta familia guztiz ezberdinak ageri dira argazkietan. Bhutan, Txina, Italia, Albania, Espainia, Mali... makina bat tokitan izan dira parte hartu duten hamasei argazkilaria. Umeentzako txoko berezia prestatu dute Euskalteliumen, haurrek euren familia marraz dezaten. “Bilboko familiak” lehiaketako hiru argazki irabazleak ere ikusgai daude bertan. **Bilbo. Euskaltelium aretoa. Azaroaren 6a arte, asteleheneetik larunbatera. Sarrera doan da.**

“Gure Artea” lehiaketako irabazleak, Artiumen

2 Ibon Aranberri, Iñaki Garmendia eta Azucena Vieites izan dira azkenengo “Gure Artea” lehiaketako sarituak. 18. edizioa da hau, hain zuzen ere. Erakusketa honetan hiruen lan berriak jaso dituzte, erakusketaren forma-

Makalak “Hondartzan” aurkeztuko du

3 Mikel Unzurrunzaga Schmitz, Mikel Makalak –discjockey, baxu jole, abeslari eta promotorea ezaguna– alegia, disko berria kaleratu du “Hondartzan” (Metak). A-Lone Ark Muzik Studion grabatu du lana, Roberto Sanchezekin. Guztira, 12 kantu dira.

Eta dagoeneko hasia du aurkezpen bira. Hurrengo saioa larunbatean izango da, Gasteizko Cairo Stereoclub aretoan. Ondoren Barzelonara, Madrilera eta Berlinera joango da. DJ moduan egingo ditu emanaldiok, eta hitz eman du udaberriari talde formatuan

itzuliko dela “Hondartzan” honekin dantza nonahi eragiteko asmoa baitu.

Funk, dub, reggae, hip hop eta doinu elektronikoek bat egiten dute Makalaren diskoan. Dantza dakarkigu reggae, drum’n'bass, latin eta funk erritmoen nahasketarekin

oraingoan. Surfa, musika eta hondartza dantza musikari zarrak.

Gasteiz. Cairo Stereoclub aretoan. Urriaren 5a, 23:00etatik aurrera.

tuarekiko halako erdi-autonomia egoera bat nabarmenduz. Artista hauek azken urteetan sorkuntzaren aldetik izan duten garapena bere testuinguruan ezagutzeko aukera da. Aranberriek “Política hidráulica” lana aurkeztu du; Garmendiak “Red Light / Straight Edge” eta “Izarrak”; eta, Azucena Vieitesek, “Oye lo que te traigo 2”. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila izan da ekoizlea, eta Peio Agirre komisarioa. **Gasteiz. Artium Museoa. 2006ko urtarrilaren 8a arte. Iparra aretoa.**

“Batekmila” ikuskizuna aurkeztuko dute Luhuson

4 Euskal Kultur Erakundeak, Ballet Biarritz / Dantza Dantza taldeak, Baionako Eszena Nazionalak eta Baionako Musika Kontserbatorioak ekoiztu dute “Batekmila”. Egistamo hau arteen bilgune izan nahi du, trukaketak nolabait bultzatuz. Sorkuntzan dantzak, kantuak, musika eta kondairak gurutzatzen dira. Bidai harrigarria da “Batekmila” Euskal Herriko ipuinak eta legiak dastatzeko. Basajaunen eta lamien ipuinak, herritarren arteko gertakari bitxiak... Barre egiteko parada ugari eskaintzen ditu ikuskizunak. **Luhusoko ikusgarri gelan. Urriaren 4an eta 5ean. Saio biak 21:00etan dira.**



PAPERREAN

Umeak heldu bihurtzean

Julen Gabiria idazlea: «ETBren miseriarik handienetakoa da ez duela lortu ETB1ekin hazi ginen umeak, behin heldu bihurtuta, ETB1era lotzea. Argi esan beharko da ETB1ek programazio ona daukala umeentzat, ondo bikoiztutako marrazki bizidunekin eta euskara egokian. Baina hortik aurrera, ure horiek heldu bihurtzen direnean, aukera ez da sekula ETB1 izango, ezpada beste kateren bat, tartean ETB2. Euskara txakurren eta

umeen hizkuntza dela ondo erakusten du, beraz, ETB1ek» **Argia**

Modu komertzialean

Anger musika taldea: «Gaur egun autoekoizpen askok copyleften aldeko apustua egiten dute. Ez ditugu diskoa, gure musika, hitzak, ideia, irudia... modu komertzialean saldu nahi. Ez dugu nahi gauza horiek produktu eta jabetza izatea, partekatzeke dira.

Edozeinek erabil ditzake, erabilera komertziala ez bada eta egileak zeintzuk diren adierazten badute» **Matraka**

Umore bera, eredu bera

Patxi Gaztelumendi: «Eta ekoizpen propioekin -kirola eta informatiboak salbu, zer daukagu ikusteko? A bai! “Goenkale”. Ez da oraindik amaitu. Beraz, Alkainen eredu horri lotu beharko gatzazkio. Ez da besterik. Azken finean, “Wazemank” eta

“Kutsidazu” aurpegi berdina, umore berdina, eredu bera... arrakasta. Beraz, ekuazioak bere emaitza ematen du. Ados. Hurrengoan, ETB dos» **Jakin**

Ezagutzen ez dena

Gotzon Garate idazlea: «Nafarroan eta Iparraldean euskarari eusten badiote, gurekin ibiliko dira. Euskarak eta euskal kulturak elkartu behar gaitu. Nik kulturari sinesmen handia ematen

diot. Zenbat eta kultura handiago izan, garbiago ikusten duzu euskarak eta gure kulturak zenbat balio duten. Gure arbasoek ez zuten euskara aintzakotzat hartzen, beraren balioa ezagutzen ez zutelako. Nik ikusi izan dut baserri batzuetan, aspaldiko kutxa zoragarriak, zaharrak zirela eta, errekar botatzen edo ijitoei merke baino merkeago saltzen. Gaurko egunean ez dute horrelako astakeriarik egiten, kutxa horien balioa ezagutzen dutelako. Euskal kontzientzia ezagutzatik sortzen da. Esaera zaharra da,

ezagutzen ez dena ez dela maitatzen» **Jakin**

Kontrastea

Andres Urrutia euskaltzainburua: «Euskaltzaindiak beharko luke jakin kontrastearen bidez, ia arau hori gizartean nola dabilen.. Problema da kontraste hori nola egin. Nik eskatuko nuke kontraste hori nahiko instituzionala izatea. Ezin daitekeena da norbera, euskaldun bakoitza, araugile izan. Hori anarkia da eta hizkuntzarentzat ez da ona». **Argia**